

Jarduerak

Gure funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, prestakuntza azkarreko janari osasuntsua prestatuko dugu, bai gure lokalean kontsumitzeko, bai eramateko.



Guk gure tokiko nekazariekin tratuak egingo ditugu haien produktuak erosteko. Produktu horiek ekologikoak izango dira eta gure jatetxeko platerak preparatzeko oso onak izango dira. Nahiz eta janari azkarreko jatetxe bat izan gure produktuak zainduko ditugu eta hoberenak eskaini nahi dizkiegu gure bezeroei.

Hala ere, oso garrantzitsuak dira enpresaren webgunea, eta online denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak ere. Gure platerak gero eta jende gehiagorengana iritsi daitezten, online denda oso garrantzitsua da. Menuak, prezioak, eta eskaintza bereziak eguneratuta edukiko ditugu une oro.

Banaketari ere arreta handia jarriko diogu. Bai zuzeneko zein etxez etxeko banaketa garaiz egitea ezinbestekoa da.

